

AZPEITIA / Ipuin kontaketa zikloa antolatu dute haurren irakurzaletasuna suspertzeko

Pello Añorga, Lupe Lekuona eta Maite Frankoizango dira, besteak beste, Azpeitiko liburutegian

Azpeitia. Ipuin kontaketa saioak eskainiko ditu Azpeitiko Udal liburutegiak hurrengo hilabeteetan zehar. Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin antolatutako egitasmoak 29. edizioa beteko du aurten eta bere helburu nagusia, ume, haur eta gazteen liburu zaletasuna suspertzea dela adierazi zuten arduradunek.

Lupe Lekuona, Maite Franko, Pello Añorga, Miriam Mendoza eta Amaia Zinzukegik bisitatuko dute, besteak beste, Azpeitiko liburutegia irailean hasi eta abendura bitartean lau eta bederatzi urte bitarteko haurrei ipuin kontaketa saioak eskaintzeko. Ekitaldiak astelehenetan izango dira eta 18.00etan hasiko dira.

Aurtengo egitasmoari ekiteko, Pello Añorga ipuin kontalaria izango da Enparan Dorretxean irailaren 22an. Lehenbiziko hitzordu hau Lehen Hezkuntzako 1 eta 2. mailako ikasleei zuzenduta egongo da, hau da, bost eta zazpi urte bitarteko haurrei eta hiru ordu laurden iraungo ditu.

Solasaldiak Azkoitian Bestalde, Azkoitiko liburutegia ere martxan hasi da ikasturte berriarekin batera eta eskaintza zabala izango dute herritarrek aurrerantzean. Honela, eta aurreko urteetako ohiturarekin jarraituz, solasaldiak izango dira Azkoitiko Aizkibel eraikinean. Liburu eta idazleen inguruko hurrengo solasaldia irailaren 25ean izango da eta interesatuek 19.00etan agertu beharko dute bertara. >K.F.